



## ERRENTERIA

UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

**Espediente zk./Nº expediente: 2025IGOB0006**

**Gaia/Asunto: 2025eko apirilaren 01eko Tokiko Gobernu Batzarra/Junta de Gobierno Local de fecha 01 de abril de 2025**

**Tokiko Gobernu Batzarra 2025eko apirilaren 01ean eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.**

Errenteriako Udaletxean, 2025eko apirilaren 01eko 09:30ak zirela, lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU), ondoko zinegotziak elkartu dira:

### **ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU**

- Alazne Korta Zulaika
- Bernar Lemos Taberna
- Eñaut Gracia Ibarra

### **ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde**

- Maite Gartzia Ontiveros
- Yolanda Martín Marcos

Bertan dago, egintza fedatzeko, Ainhoa Esnaola Zubeldia Idazkari orokorra.

### **1. 2025eko martxoaren 18an ohiko bilkurari dagokion akta irakurri, eta egoki bada, onartzea. (2025IGOB0006).**

Oharrik gabe onartu da.

**Acta de la sesión ordinaria de Junta de Gobierno Local celebrada el día 01 de abril de 2025.**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 09:30 horas del día 01 de abril de 2025, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de La alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU), las siguientes concejalas y concejales:

### **ORERETA/ERRENTERIAKO EH BILDU**

- Alazne Korta Zulaika
- Bernar Lemos Taberna
- Eñaut Gracia Ibarra

### **ELKARREKIN ERRENTERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde**

- Maite Gartzia Ontiveros
- Yolanda Martín Marcos

Asiste y da fe del Acto Secretaria general Ainhoa Esnaola Zubeldia.

### **1. Lectura y aprobación en su caso del acta correspondiente a la sesión ordinaria del 18 de marzo de 2025. (2025IGOB0006).**

Se aprueba sin observación alguna.

### **2. 2022-2025 urte anitzetako Lan Eskaintza Publikoen Plangintzaren aldaketa. (2025ROPE0002)**

### **2. Modificación de la Planificación Plurianual de Ofertas de Empleo Público 2022–2025. (2025ROPE0002)**



## ERRENTERIA

UDALA

Idazkaritz Orokorra / Secretaría General

### AURREKARIAK

2023ko abenduaren 20ko Tokiko Gobernu Batzordeko akordio bidez 2022-2025eko Lan Eskaintza Publikoen urte anitzetako Plangintza onartu zen, hurrengo ekitaldietako Enplegu Publikoaren Eskaintzak diseinatzeko ibilbide-orri gisa, bai eta eskaintza horiek gauzatzeko ere, honako helburu hauek lortzeko:

- \* Udalaren behin-behinekotasuna % 8tik behera kokatzea, 2027an Plana gauzatu ondoren lortuko litzatekeena. 2023an, % 48an zenbatu zen, nahiz eta egonkortze-prozesuak zein beste hautaketa-prozesu libre zein barne-sustapenekoak abian egon, eta horiek kenduta, bitarteko langileen tasa plantillako plazen % 27 ingurukoa izango litzateke.
- \* Hautaketa-prozesuak optimizatzea, deialdi bakotzean ahalik eta plaza gehien bilduz. Horrela, langileen erretiroen ondorioz edo dotazio berriak sortzearen ondorioz sor daitezkeen plaza hutsak gehituko dira.
- \* Prozesuak arintzea eta horietan egin beharreko proben kalitatea hobetzea.
- \* Plazak bitarteko funtzionario izendapenaren bidez aldi baterako betetzen badira, hautaketa-prozesuetarako deialdia bermatzea, legeak aurreikusitako hiru urteko gehieneko epean.
- \* Barne-sustapena bizkorago eta efizienteago egiteko aukera ematea.
- \* Gardentasun-ariketa batean, udal-langileek eta gainerako herritarrek Udalak deitu beharreko hautaketa-prozesuen berri izatea, bai eta prozesu horiek garatzeko daten aurreikuspena.

### ANTECEDENTES

Mediante acuerdo de la Junta de Gobierno Local de la Planificación 20 de diciembre de 2023 se aprobó la Planificación Plurianual de Ofertas de Empleo Público 2022 - 2025, como hoja de ruta para diseñar las Ofertas de Empleo Público de los próximos ejercicios, así como su ejecución, al objeto de alcanzar los siguientes objetivos:

- \* Situar la tasa de interinidad del Ayuntamiento por debajo del 8 %, lo cual se lograría tras la ejecución del Plan en el año 2027. En 2023 se cuantificó en el 48 %, si bien se encuentran en marcha tanto los procesos de estabilización como otros procesos selectivos, libres como de promoción interna, descontando los mismos la tasa de interinidad rondaría el 27 % de las plazas de plantilla.
- \* Optimizar los procesos selectivos aglutinando en cada convocatoria el mayor número de plazas posible. De esta forma se irán añadiendo las vacantes que puedan surgir como consecuencia de las jubilaciones del personal o de la creación de nuevas dotaciones.
- \* Agilizar los procesos así como una mayor calidad en las pruebas a realizar en los mismos.
- \* En el supuesto de provisión temporal de puestos de trabajo mediante nombramiento de funcionario/a interina, garantizar la convocatoria de los procesos selectivos en el plazo máximo de tres años previsto por la ley.
- \* Posibilitar la promoción interna de una manera más agil y eficiente.
- \* En un ejercicio de transparencia que tanto las y los empleados municipales como el resto de la ciudadanía tenga conocimiento de los procesos selectivos a convocar por el Ayuntamiento así como una estimación de las fechas posibles para su



## ERRENTERIA

UDALA

Idazkaritz Orokorra / Secretaría General

desarrollo.

LEP plangintzaren azken urtean gaudenez, eta aurreko bi ekitaldiak ebaluatu ondoren, dokumentua egunerautu egin behar izan da, eta hasieran aurreikusitako plangintzan aldaketa txiki batzuk egin behar izan dira, deskribatutako helburuak lortzeko.

Dokumentu berria expedientean jaso da.

Encontrándonos en el último año de la planificación de las OEP, y una vez evaluados los dos ejercicios anteriores, se ha visto necesario actualizar el documento incluyendo unas pequeñas modificaciones a la planificación inicialmente prevista al objeto de lograr los objetivos descritos.

El nuevo documento se ha recogido en el expediente.

### ZUZENBIDE OINARRIAK

- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30eko, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa.
- 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legea.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasuna, informazio publikora sarbidea eta gobernu onari buruzkoa
- Erreenteriako Udaleko pertsonalaren lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena (Udalhitz).

Giza baliabideak planifikatzerakoaren bidez administrazioak bere gain hartuta duen zerbitzu publikoa modu eraginkorrenean ematea bilatu eta lortu nahi du, betiere, antolamendu juridikoa zehatz-mehatz errespetatuz, eta beraz, une bakotzean indarrean dauden legeetan aurreikusitako teknikak eta neurriak erabiliz.

### FUNDAMENTOS DE DERECHO

- RDL 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.
  - Ley 11/2022, de 1 de diciembre, del Empleo Público Vasco.
  - Ley 31/2022, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2023.
  - Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local.
  - Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.
  - Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal del Ayuntamiento de Erreenteria (Udalhitz).
- La planificación de los recursos humanos en una Administración Pública debe realizarse partiendo del presupuesto básico de que la misma ha de tender a la búsqueda y consecución de la mayor eficacia posible en la prestación de los servicios públicos que tiene encomendados, dentro del respeto escrupuloso del ordenamiento jurídico y, por ello, con la utilización de las técnicas y medios previstos en la legislación



## ERRENTERIA

### UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

LPOETBak 69. artikuluan aurreikusten ditu giza baliabideen arloko plangintza-tresnak. Aurrekoak garatzeko, 11/2022 Legearen 48. artikuluak ezartzen du enplegu publikoaren plangintzak eta enplegu publikoa planifikatzeko tresnak prestatzeak edo erabiltzeak honako helburu hauek izango dituela: zerbitzuak eraginkortasunez ematea eta eskura dauden giza baliabideak, baliabide ekonomikoak, materialak eta teknologikoak eraginkortasunez erabiltzea. Era berean, gaineratu du genero-ikuspegia jaso beharko duela, eta Administrazio Publikoko langileen egokitasuna izan beharko duela helburu, giza baliabideen arloko politikak landuz.

11/2022 Legearen 49. artikuluak enplegu publikoa antolatzeko planak aurreikusten ditu horretarako tresna gisa, eta, nolanahi ere, negoziazio kolektiboaren xede izango dira.

Plangintza horrek ez ditu ordeztuko Administrazio Publiko honek urtero egin eta onartu behar dituen Enplegu Publikoko Eskaintzak, baina horiek egiteko oinarria izango da, eta prestakuntza hori, izapidezeta eta onartzea bizkortuko ditu.

Nolanahi ere, ekitaldi bakoitzeko LEPak prestatu eta onartuta, helburuak ebaluatu eta plana berrikusiko da, eta, hala badagokio, egokitza jotzen diren aldaketak sartuko dira.

2023ko ekitaldirako Estatuko Aurrekontu Orokoren Legeak, 2025ean luzatua, 20. artikuluan, Enplegu Publikoaren Eskaintzei eta Langileen Birjarpen Tasaren aplikazioari dagokienez, Administrazio bakoitzak ezohiko izaeraaz baimendu ahal izango duen tasa espezifiko bat ezartzen du. Tasa hori beharrezkoa izango da Enplegu Publikoaren Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurriei

vigente en cada momento.

El TREBEP en su artículo 69 prevé los instrumentos de planificación en materia de recursos humanos. En desarrollo de los anterior, el artículo 48 de la Ley 11/2022 establece que La planificación del empleo público y la elaboración o utilización de los distintos instrumentos de planificación de empleo público tendrán como objetivo la consecución de la eficacia en la prestación de los servicios y la eficiencia en la utilización de los recursos humanos, económicos, materiales y tecnológicos disponible. Así mismo, añade que deberá incluir la perspectiva de género, y tener como objetivo la adecuación de los efectivos de la Administración Pública mediante la elaboración de sus diferentes políticas en materia de recursos humanos.

El artículo 49 de la Ley 11/2022 prevé los planes de ordenación de empleo público como instrumento para tal fin, que en todo caso serán objeto de negociación colectiva.

La citada planificación no sustituirá a las Ofertas de Empleo Público que con carácter anual debe elaborar y aprobar esta Administración Pública, pero será la base para la elaboración de las mismas, agilizando tanto dicha elaboración como su tramitación y aprobación.

En todo caso, con la elaboración y aprobación de las OEP de cada ejercicio se procederá a la evaluación de objetivos y revisión del plan, y cuando proceda a incluir las modificaciones que se estimen oportunas.

La Ley de Presupuestos Generales del Estado para el ejercicio 2023, prorrogada en 2025, en su artículo 20 establece en relación a las Ofertas de Empleo Público y aplicación de la tasa de reposición de efectivos que cada Administración podrá autorizar, con carácter extraordinario, una tasa específica que sea necesaria para dar cumplimiento del objetivo previsto en la Ley 20/2021, de 28 de diciembre, de



## ERRENTERIA

### UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean aurreikusitako helburua betetzeko, hau da, emplegu publikoaren behin-behinekotasunak ez dezala gainditu egitura-izaerako plazen ehuneko 8 eremu bakoitzean, betiere justifikatuta badago izan beharko duen urte anitzeko plangintza-tresnaren arabera.

Beraz, legeak aipatzen duen aparteko tasa baimentzeko balioko luke plangintza honek.

Gaia Udaleko Negoziazio Mahai Orokorrean negoziatu da 2025eko urtarrilaren 29an izandako bileran, eta Gobernu Taldeak eta sindikatuek (LAB, CCOO eta ESAN sindikatuak) akordio bat lortu dute.

Giza Baliabideetako Arduradunak 2023ko abenduaren 13ko dataz txostena eman zuen.

Giza Baliabideetako delegatuak egindako erabaki-proposamena, eta Giza Baliabideetako Arduradunak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau

medidas urgentes para la reducción de la temporalidad en el empleo público, de que la temporalidad en el empleo público no supere el 8 por ciento de las plazas de naturaleza estructural en cada uno de sus ámbitos, siempre que venga justificado de acuerdo con el instrumento de planificación plurianual con que deberá contar.

Por lo tanto, la presente planificación serviría para poder autorizar la tasa extraordinaria a la que se refiere la ley.

El asunto ha sido negociado en la Mesa General de Negociación del Ayuntamiento en la reunión mantenida el día 29 de enero de 2025, habiendo alcanzado un acuerdo entre el Equipo de Gobierno y la parte sindical (sindicatos LAB, CCOO y ESAN).

La Responsable de Recursos Humanos emitió informe con fecha 13 de diciembre de 2023.

Vista la propuesta de acuerdo de la delegada de Recursos Humanos y la conformidad dada por la Responsable de Recursos Humanos a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

### ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Onartzea 2022-2025eko Lan Eskaintza Publikoen urte anitzetako Plangintzaren aldaketa eta eguneratzea, espedientean eranskin moduan jasotzen dena.

BIGARRENA.- Akordio honen berri ematea udal langile guztiei Langileen Atariaren bidez, eta onartutako plangintzaren argitarapena burutzea udaleko Gardentasun Atarian.

### ACUERDA

PRIMERO.- Modificar y actualizar la Planificación plurianual de Ofertas de Empleo Público 2022 – 2025 que se recoge como anexo en el expediente.

SEGUNDO.- Comunicar el presente acuerdo a todo el personal municipal mediante el Portal del Empleado/a y proceder a la publicación de la planificación aprobada en el Portal de Transparencia del Ayuntamiento.



## ERRENTERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

### **3. 14. Taxi lizentzia eskualdatzea. (2025UTLE0001)**

#### AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak 2006ko uztailaren 21ean eginko bilkuran, **14** zenbakidun Auto-Taxiaren udal lizentzia ustiatzeko baimena eman zion **15944216-H-i**.

2025eko otsailaren 25ean, **15944216-H -ek** eskatu zuen aipatutako **14 zenbakidun Auto-Taxi lizentzia, 44158375-P** -ri eskualdatzeko baimena.

#### ZUZENBIDE OINARRIAK

- Erreenteriako Auto-Taxi Zerbitzuaren udal-ordenanza 2013ko uztailaren 18an onartua.
- 2/2000 Legea, ekainaren 29koa, Bidaiaiak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duena.
- 243/2002 Dekretua, urriaren 15ekoa, bidaiaiak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen Legearren Erregelamendua onartzen duena.

Taxi lizentzia **14** zenbakidunaren egun titularra denak eta baita titular berria izango denak ere agirien bitartezi ziurtatu dute transmisioa burutu ahal izateko legerian ezarritako baldintzak betetzen dituztela. Erosleak xedapenetan ezartzen diren baldintzak bete dituela egiaztago beharko du esku-aldatze Erabakia jakinarazten zaion hurrengo egunetik hasita **15 eguneko epean** esku-aldatzearen eraginkortasuna baldintza horiek betetzearen menpe gelditzten delarik.

**44158375-P** udal gida baimena lortzeko frogatzea

### **3. Transmisión de licencia de taxi N° 14. (2025UTLE0001)**

#### ANTECEDENTES

Por acuerdo de Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 21 de julio de 2006 se concedió a **15944216-H**, autorización para la explotación de la licencia municipal de Auto-Taxi n.º **14**.

Con fecha 25 de febrero de 2025, **15944216-H** solicita la transmisión de la citada licencia de Auto-Taxi n.º **14 a favor de 44158375-P**.

#### FUNDAMENTOS DE DERECHO

- Ordenanza Municipal del servicio de Auto-Taxi de Erreenteria aprobada el 18 de julio de 2013.
- Ley 2/2000, de 29 de junio, de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles Turismo.
- Decreto 243/2002, de 15 de octubre, Reglamento de la Ley de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles Turismo.

Tanto el titular actual como la persona propuesta para ser el nuevo titular de la Licencia nº **14** han acreditado documentalmente el cumplimiento de parte de los requisitos establecidos en la legislación vigente para autorizar la transmisión de dicha licencia. El adquiriente deberá acreditar los requisitos establecidos en la parte dispositiva en el **plazo de 15 días** a partir de la notificación del Acuerdo de transmisión, quedando la eficacia de dicha transmisión condicionada al cumplimiento de dichos requisitos.

**44158375-P** habiendo sido convocado a la prueba



## ERRENTERIA

### UDALA

Idazkaritz Orokorra / Secretaría General

deitua izan da eta baimen hori lortu du 2025ko martxoaren 19an.

Udaltzaingoko Oficialburuak honi buruzko txostena egin du 2025ko martxoaren 21ean.

Aipatutako Ordenantzan ezarritakoaren arabera, Gobernu Batzarraren eskumena da ondoko akordioa hartzea.

Trafiko eta Garraioko delegatuak egindako erabaki-proposamena, eta aholkulari juridikoak expedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau,

para la obtención del permiso municipal de conductor, éste ha obtenido dicho permiso con fecha 19 de marzo de 2025.

El Oficial Jefe de la Policía Local ha emitido informe al respecto con fecha 21 de marzo de 2025.

Considerando que la aprobación de este acuerdo es competencia de esta Junta de Gobierno Local, por así establecerlo la citada Ordenanza.

Vista la propuesta de acuerdo del delegado de Tráfico y Transporte y la conformidad dada por la asesora jurídica a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

### ERABAKI DU

**1.- Baimena ematea 14 zk.-ko Auto-Taxi (A maila) Udal lizentzia eskuz aldatzeko, 44158375-P -en alde, egungo titularra 15944216-H izanik, baldintzatuta lehenak erabaki honen jakinarazpena jaso eta HAMABOST EGUNeko gehieneko epean, aurkeztu ditzen honako agiri hauetek, beti ere horrela ez bada baimen hau eraginik gabe geratuko delarik:**

- Jarduera hasi izanaren zentsu-aitorpenaren kopia (persona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako).
- Gizarte Segurantzaren langile autonomoen erregimen berezian altan egotearen aitorpena.
- Lizentziari atxikita dagoen eta zerbitzua emateko erabiliko duen ibilgailuaren zirkulazioko baimena, eta

### ACUERDA

**1.- Autorizar la transmisión de la Licencia Municipal de Autotaxi (Clase A) nº 14 cuyo titular es 15944216-H en favor de 44158375-P, condicionada a que este último presente en el plazo máximo de QUINCE DIAS contado a partir de la notificación del presente acuerdo, la siguiente documentación y quedando automáticamente sin efecto en caso contrario:**

- Copia de la declaración censal de comienzo de actividad a efectos del impuesto sobre la renta de las personas físicas y del impuesto sobre el valor añadido.
- Declaración de alta en el régimen especial de trabajadoras y trabajadores autónomos de la Seguridad Social.
- Permiso de circulación del vehículo adscrito a la licencia y con el que va a prestar servicio, y



## ERRENTERIA

### UDALA

Idazkaritz Orokorra / Secretaría General

eskuratu izana egiazatzen duen dokumentazioa, betiere ibilgailua aldatzeko baldintzak betetzen baditu horrek.

- Erantzukizun zibilaren gaineko aseguruaren poliza nahitaez egin behar duten motordun ibilgailuak erabiltzearen ondoriozko poliza, eta erantzukizun zibilaren gaineko poliza, egiten den garraioa dela-eta erabiltzaileei eragin dokiekeen kalte guztiak estaltzeko.

Lizentziaren titular berriak eskualdatzailearen prestazioak mantendu beharko ditu.

Lizentziaren titular berriak ez badu eskatutako dokumentazioa aurkezten edo jakinarazitako hutsuneren bat ez badu horretarako emandako epean konpontzen, Auto-Taxiaren lizentziaren eskualdaketa eraginik gabe geratuko da.

2.- Lizentzia eskualdaketa hau hurrengo arauen menpe geratzen da, ekainaren 29ko 2/2000 Legea, bidaiaiak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garaiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duena, eta urriaren 15eko 243/2002 Dekretua, Bidaiaiak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garaiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen Legearren Erreglamendua. Aldi berean, 2013ko ekainaren 18an onartutako Taxi Zerbitzuaren Udal Ordenantzari, eta momento bakotzean arlo horretan indarrean degoen gainerako legeria.

3.- Auto-taxi eta beste alokairuzko ibilgailuen lizentziak eta baimen administratiboak emateagatik tasa ezartzen duen Ordenantzak araututakoaren arabera dagozkion udal zergak ordaindu beharko da.

documentación acreditativa de haber obtenido la disposición del vehículo hasta el momento, u otro nuevo, siempre y cuando cumpla los requisitos previstos para la sustitución de los vehículos.

- Póliza del seguro de responsabilidad civil derivada del uso y circulación de vehículos a motor de suscripción obligatoria, y póliza de seguro de responsabilidad civil que cubra cuantos daños y perjuicios puedan causar a los usuarios o usuarias con ocasión del servicio de transporte que realicen.

La nueva persona titular de la licencia deberá mantener las prestaciones del transmitente.

Si el nuevo titular de licencia no aportara la documentación requerida o no subsanara alguna deficiencia comunicada en el plazo concedido al efecto, quedará sin efecto la transmisión de la licencia de Auto-Taxi.

2.- Esta transmisión de licencia queda sometida a lo dispuesto en la Ley 2/2000 de 29 de junio, de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles Turismo y Decreto 243/2002, de 15 de octubre, Reglamento de la Ley de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros en Automóviles Turismo y la Ordenanza Municipal del Servicio de Auto-Taxi aprobada el 18 de junio de 2013, y normativa vigente en la materia en cada momento.

3.- Se deberán abonar los correspondientes derechos municipales conforme a lo establecido en la Ordenanza Reguladora de la Tasa por otorgamiento de licencias y autorizaciones administrativas de Autotaxis y demás vehículos de alquiler.

#### 4. Administrazio arteko hitzarmena: Erregimen bereziko Taxi Eremua Erreenteriako 2025

#### 4. Convenio inter-administrativo: Zona de Régimen Especial Taxi\_Calendario Erreenteria



## ERRENTERIA

UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

### egutegia.(2025UPOL0011)

#### AURREKARIAK

Donostia, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil, Lezo, Oiartzun, Errenteria eta Pasaiko udalek administrazioen arteko hitzarmena sinatu zuten, Donostialdeko erregimen bereziko eremua sortzeko eskaera egiteko, Turismo Automóvil en Hiri eta Hiriarteko Garraio Públicoaren zerbitzua emateko.

Erregimen Bereziko Eremua sortzeko arrazoi nagusia izan zen garraio-beharre erantzutea bi udalerri edo gehiagoren arteko zirkulazio-elkarrekintza dagozkien baimen eta lizenziarrek behar bezala betetzen ez zitzuten eskariak sortzen zituen eremuetan. Neurri horren helburua zen garraio-zerbitzuen koordinazioa eta eraginkortasuna hobetza eragindako udalerrien arteko elkarrengana edo elkarrekiko eragina duten eremuetan.

2024ko abenduaren 30ean, Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako foru diputatuaren abenduaren 23ko Foru Agindua argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Horren bidez, Donostialdeko erregimen bereziko eremua eratzea onartu zen, turismo ibilgailuetan bidaiaiaren herri barruko edo herriarteko garraio públicoaren zerbitzua emateko.

Sinatutako hitzarmenaren zazpigaren artikuluak honako hau ezartzen du: “*Udal bakoitzak, bere udalerriko auto-taxien ordezkariei konsultatu ondoren, egutegi bat egin beharko du urtero bere udalerrirako, azaroaren 15a baino lehen.*

*Udalek egutegi hori bidaliko diote Jarraipen Batzordeari, azaroaren 15a baino lehen, batzorde horrek aukera izan dezan udal bakoitzaren egutegia ebaluatu eta hobetzeko, azaroaren 25a baino lehen.*

### 2025. (2025UPOL0011)

#### ANTECEDENTES

Los ayuntamientos de Donostia, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil, Lezo, Oiartzun, Errenteria y Pasaia suscribieron un convenio interadministrativo para formular una solicitud de creación de la zona de régimen especial de Donostialdea para la prestación del servicio de Transporte Público Urbano e Interurbano en Automóviles de Turismo.

La principal razón que llevó a la creación de la Zona de Régimen Especial fue atender las necesidades de transporte en áreas donde la interacción de tráfico entre dos o más municipios generaba demandas no suficientemente cubiertas por los titulares de las autorizaciones y licencias correspondientes. Esta medida buscaba mejorar la coordinación y eficiencia de los servicios de transporte en zonas con interacción o influencia mutua entre los municipios afectados.

El 30 de diciembre de 2024 se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa la Orden Foral de la Diputada Foral de Movilidad, Turismo y Ordenación del Territorio 23 de diciembre, por la que se aprobaba la Constitución de la Zona de Régimen Especial de Donostialdea a los solos efectos de la prestación del servicio de Transporte Público Urbano e Interurbano en Automóviles de Turismo.

El artículo séptimo del convenio suscrito establece que “*Cada Ayuntamiento, habiendo previamente consultado a los representantes del auto-taxi de su municipio, deberá elaborar anualmente un calendario para su concreto municipio antes del 15 de noviembre del año en curso.*

*Asimismo, los Ayuntamientos deberán remitir el referido calendario a la Comisión de Seguimiento, antes del mencionado 15 de noviembre del año en curso, al objeto de que esta última pueda evaluar y proponer*



## ERRENTERIA

UDALA

Idazkaritz Orokorra / Secretaría General

*Jarraipen Batzordearen proposamena gehiengo soilez onartuko da, nahiz eta ez den loteslea izango Udalentzat.*

*Udalek, abenduaren 5a baino lehen, Jarraipen Batzordearen proposamena ebaluatuko dute, eta, egoki iritziz gero, beste egutegi-proposamen bat igorriko diote batzorde horri. Egutegi-proposamen hori loteslea izango da Jarraipen Batzordearentzat.*

*Azkenik, abenduaren 15a baino lehen, Udalek erabakitakoaren arabera, Jarraipen Batzordeak I. eranskina prestatuko du, hurrengo urtean indarrean egongo dena, eta Udal bakoitzari bidaliko dio, argitaratzeko.”*

Horrela, Donostialdeko erregimen bereziko eremua eratzea onartu ondoren, turismo ibilgailuetan bidaiaien herri barruko edo herriarteko garraio publikoaren zerbitzua emateko, eta udal auto-taxiaren ordezkariei konsulta eginda, 2025. urterako egutegia onartu behar da, gero Jarraipen Batzordera bidaltzeko.

2025eko martxoaren 13an, Udaleko ordezkarria taxilariekin bildu da 2025eko egutegia adosteko.

### ZUZENBIDE OINARRIAK

- Administrazio arteko Hitzarmena Donostia, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil, Lezo, Oiartzun, Pasaia eta Erreenteriako udalen artekoa, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzeko erregimen bereziko eremu bat sor dezala bidaiaiak turismo-ibilgailuetan garraiatzeko zerbitzuak emateko.

*mejoras al calendario de cada Ayuntamiento antes del día 25 de noviembre del año en curso. La propuesta de la Comisión de Seguimiento deberá ser aprobada por mayoría simple si bien no será vinculante para los Ayuntamientos.*

*Los Ayuntamientos, antes del 5 de diciembre del año en curso, evaluarán la propuesta de la Comisión de Seguimiento, remitiendo, si así lo consideran, una nueva propuesta de calendario a la referida Comisión. Esta propuesta de calendario será vinculante para la Comisión de Seguimiento.*

*Finalmente, antes del 15 de diciembre del año en curso, la Comisión de Seguimiento, y en función de lo dispuesto por los Ayuntamientos, preparará el anexo I que regirá en el año siguiente, procediendo a su remisión a cada uno de los Ayuntamientos a los efectos de su publicación.”*

Así, una vez aprobada la Constitución de la Zona de Régimen Especial de Donostialdea a los solos efectos de la prestación del servicio de Transporte Público Urbano e Interurbano en Automóviles de Turismo, previa consulta con los representantes del auto-taxi municipales, se ha de aprobar el calendario para el año 2025 para proceder a su posterior remisión a la Comisión de Seguimiento.

Con fecha 13 de marzo de 2025, la representante del Ayuntamiento, se ha reunido con los taxistas de la zona para acordar el calendario del año 2025.

### FUNDAMENTOS DE DERECHO

- Convenio interadministrativo entre el Ayuntamiento de San Sebastián, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil, Lezo, Oiartzun, Pasaia y Erreenteria, por el que se insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa la creación de una zona de régimen especial para la prestación de los servicios de transporte de viajeros en automóviles de turismo.



## ERRENTERIA

### UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

- Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Foru Diputatuaren abenduaren 23ko Foru Agindua, Donostialdeko erregimen bereziko eremua eratzea onartzan duena, turismo ibilgailuetan bidaiaien herri barruko edo herriarteko garraio publikoaren zerbitzua emateko.

Udaltzaingoko ofizial buruak aldeko txostena eman du.

Hitzarmena onartzeko eskumeneko organoa Tokiko Gobernu Batzarra da 2023ko ekainaren 20an dekretu bidez erabakitako alkatearen eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzearekin bat etorrita

Trafiko eta Garraioko delegatuak eta Ingurumen eta Jasangarritasun delegatuak egindako erabaki proposamena, eta aholkulari juridikoak espesienteean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

- Orden Foral de la Diputada Foral de Movilidad, Turismo y Ordenación del Territorio, de 23 de diciembre, por la que se aprueba la constitución de una zona de régimen especial de Donostialdea para la prestación del servicio de transporte público urbano e interurbano de viajeros en vehículos de turismo.

El Oficial Jefe de la Policía Local ha emitido informe favorable al respecto.

El órgano competente para la aprobación del Convenio es la Junta de Gobierno Local , de acuerdo al Decreto 1603 de 20 de Junio de 2023 de delegación de competencias de la alcaldesa en la Junta de Gobierno Local.

Vista la propuesta de acuerdo del delegado de Tráfico y Transporte y de la delegada de Medio Ambiente y Sostenibilidad y la conformidad dada por la asesora jurídica a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

### ERABAKI DU

1.- ONARTZEA Donostialdeko Erregimen Bereziko Gunearen 2025eko egutegia eta ordutegiak, ondorengoak izanik:

2025 UZTAILA	
Uztailak 22, asteartea	00:00 - 07:00
Uztailak 23, asteazkena	00:00 - 07:00
Uztailak 24, osteguna	00:00 - 07:00
Uztailak 25, ostirala	00:00 - 07:00
2026 URTARRILA	
Urtarrilak 1, osteguna	00:00 - 07:00

JULIO 2025	
22 de julio, martes	00:00 - 07:00
23 de julio, miércoles	00:00 - 07:00
24 de julio, jueves	00:00 - 07:00
25 de julio, viernes	00:00 - 07:00
ENERO 2026	
1 de enero, jueves	00:00 - 07:00

### ACUERDA

1.- APROBAR el calendario y horarios de vigencia de la Zona de Régimen Especial de Donostialdea para el año 2025, siendo el siguiente:



## ERREENTERIA

### UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

**2.- Erabaki hau Jarraipen Batzordeari  
JAKINARAZTEA.**

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:45 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

Errenteria, 2025eko apirilaren 01a

**2.- NOTIFICAR el presente acuerdo a la Comisión del Seguimiento.**

Y sin más asuntos de los que tratar, la presidenta levanta la sesión, siendo las 09:45 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta. La secretaria general.

Errenteria, a 01 de abril de 2025

Idazkari orokorra / Secretaria general

Ainhoa Esnaola Zubeldia



EKS | CSV: ESKU85b419c4-5793-41c0-8666-af9114f5d204

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinaduraurreko URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>  
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2025IGOBO0006-AKTA/ACTA (ERREENTERIAKO UDALA)